

Manolo Agirrezabal Izeta
Zarautz, Gipuzkoa (1916-2001)

Aurkibidea

Biografia

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean, Zarautzi buruzko hainbat istorio kontatu eta hainbat abesti kantatu zituen.

Zintak

ZAR-124

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oñatibia, Manu
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Oñatibia, Manu

Pasarteak

1. Beren taberna Kale Nagusian

- **Erref:** ZAR-124/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:24. **Bukatu:** 00:02:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Txikitan, taberna bat zuten kale nagusian, Zarautzen oso taberna gutxi zeuden garaian. Apopiloak izaten zituzten tabernan. Jose Manuel Lujanbio Txirrita izan zuen apopilo ezagunenetariko bat, eta bertsoak botatzen zizkien. Txirritari buruzko anekdota bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Ni mutil koskorra nitzala, kale Nagusian, hori nere arrebak dakan mertzeiyan, hor giñun taberna. Taberna hortan eamaten zuen gurasuak, eta nere arrebak eoten zian tabernan. Eta orduan Zarautzen oso taberna gutxi zian, lau o bost: guria, Pionekua, Kojuanekua, Laureano Txerri kalen, neskazar batzuek Frailetako aurrian, ez dakit besteen bat lagako deten. Gero, berriz, guk eukitzen giñun apopilluak, apopilluak tabernan. Ta geo taberna ere irikitzen zan goizian goizo, ta illuntzian'e goizo itxiko zan... Ez oain bezela, goizeko hirutan eo lautan. Guk euki giñun apopilluak, nik dakitenez aituta, famosuenetakoa izan zan Txirrita. Txirrita etorri zan Zarautza hargintza, ta gure itxian eoten zan. Ta honek tabernan ardo pixkat eaten zunian, bertsuak botatzen zitun, eta nola eskribitzen ez zekiin, nere arreba zarrenak, Manolik, jartzen zitun papelian; eta gero, beak esaten ziyon ze bertso bota zun, ta orduan beak ikasten zun buruz. Ta halaxen, halaxen. Ta... behin batian jun men zan, ba, kumunea gure Txirrita famoso hau, ta gero nere arreba jun zanian: "hamen, ze arrayo dao hemen?". Ta... honek ladrillo puska batekin atzealdia garbitu ez du, ba! Ta holako istoriyak.

2. Bere familiaren bizibideak

- **Erref:** ZAR-124/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:03:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Bere aita abereak zituen; eta ikatza eta egurra saltzen zituen. Beren taberna

atzean saloi handi bat zeukaten, eta Zarautzen egon zen lehenengo jolasteko saloia izan zen hura. Fonografo bat ere bazuten, eta askotan jotzen zuen pieza baten doinua abesten du.

Transkripzioa

Eta geo guk, nere aitak eukitzen zun, denbora haitan eukitzen zitun bi behi, ta astua're bai. T a geo ikatza ta egurra saltzen zun nik oain denda dakaten tokiyan. Ta tabernan atzian giñun guk saloi haundi bat, ta Zarauzko aurrenengo josta... josta... jostatzeko billarrak ta eon zala, aurreneko saloya zan Zarautzen denbora haitan. Beste gauza bat, oain goatzen naiz momentuan: fonografo haundi bat'e bagiñun, fonografo haundi bat, hola guardasola mouko katxarro haundi batekin. Orduan fonografo Zautzen gutxi eongo zian, ez dakit, bakarra izango zan, oso gutxi eongo zian... Eta geyo... goatzen naiz pieza bat asko jotzen zuna: erderazko letra daka, baiño... orain musika bakarrik zeatuko det. Tarali lirilala laralalali, lerolalala, ta tzunpata tzunpata tzunta ta ra ta txunba tzunbarabara.

3. Zenbait anekdota

- **Erref:** ZAR-124/004
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Politika » Politika eta Franco
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Behin astoarekin aitaren lursail batzuetara joan zirenean, astoak ihesi egin zien. Sagastia ere bazuten. Sagastiko txabolan ikurrina zeukaten ezkutatuta, eta lapurtu egin zieten.</p>

Transkripzioa

Oain, berriz, geyo nik zer kontatuko ber diyat? Zarauzko kontuak? Behin batian, goatzen naiz, nik, astuakin jun giñen, hamen, aurreneko tunelen gaiñian terreno bat ibiltzen zun nere aitak; nik ez dakit ba, nik zortzi-betzi urte eukiko nitun, ta... astuakin jun giñan gora, eta belarra moztea jun zan han gora, eta oain bide txiorra badago Zamaiko zulotik gora? Hortik gora jutun giñan. Ta in diu ihesi astuak, goitikan ihesi, astuak ihesi, ta... mekatxis! Ni mutil koskorra ta: "jun hai atzetik ta aber harrapatzen deken!". Ta iya behera jetxitakoan harrapatu, ta berriz'e gora. Holako ixtoriyak... Geo sagastiya ere bagiñun guk; sagastiya bastante earra gaiñez'e. Orain, orain fabrika einda dao, baiña... sagastiya sagar earrakin, sagar earrakin.

Oain kontatuko nuke beste ixtori bat, baiña... kontatu eingo det gaiñez'e. Guk, gerratian bukatu zanian, Emakume Abertzaleko ikurriña o bandera nere arrebak gorde zun, ta gailleta gailleta kaja baten barruan sartu zun, ta euki giñun urtetan, gerra denboran, Francon denboran, urtetan, txabola baten barruan gailleta kaja paeta zulo batian sartuta. Egun batian, sartu dia mutil koskorrak txabolan... zer gertatuko? Gailletak fabrika, o gailleta

kaja ikurriñakin lapurtu ein zuen... Francon denboran zan geo hura e! Guk pasa giñun bildurrak! Mekatxis! Hoixe bakarra bihar diyau! Oain azaltzen bada, ze? Baiño harrapatu zuenak'e ez zian zeakuak e? Frankistak ez zian. Ta ez zan, behintzat, azaldu; ez dakit orain geoztik azaldu dan. Hori're, hori're gertatutakua!

4. Gerran izan zuen zortea

- **Erref:** ZAR-124/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

19 urte zituela, gerra etorri, eta beste lau zarautztarrekin batera joan zen Jakara soldadu. Hara iritsitakoan, euskaraz ari zirenez, gizon batek nongoak ziren galdetu zien. Eta kasualitatea, gizon hark txikitatik ezagutzen zuen Manolo. Hari esker, gerra osoan laguntzaile egon ahal izan zen Jakan.

Transkripzioa

Gure tabernakin lotutako gauza batzuek... ze esango dizuet, ba? Guk, nik hemeretzi urte nitunian etorri zan gerratia, ta jun giñan Zarautztikan bost jun giñan Jakaa: bat, Xalbardin; bestia, Santa Barbarakua; bestia, Larrarte, Bordako baserrikua; Angel Usobiaga... Geyo zein giñan? Untsaingo mutilla, Untsaingo baserrikua, ta ni. Ta aurrenengo egunian jun gea Jakaa, ta eman zizkigun zeak, gure erremintak, trastuak, danak galtzak botoyakin lotuta, ta batzuek geatu zian, bai, hankak potoluak zituela, ta kalea... ezin erten kalea... Jun gea taberna batea Jakan, ta euskeraz ai giñan gu taberna batian, ta han karabiñero bat zeon, ta euskeraz aitu ziunean, "nunguak zeate? De dónde sois?", "Yo de Zarauz. De la... Iriondoneko tabernakua! De la taberna de Iriondo". "Mekatxis! Yo, si he estado en Zarauz! Yo vine a Jaca de Zarauz! Y te conocía yo desde cuando naciste!". Txikiya-txikiya zianetik ezautzen zigula, ta haren bitartez, nik euki nun suertia gerrate guztiya asistente eoteko. Porke, Jakako kuartelian erakusten zuen, karabiñeruak erakusten zuen, zea, instruziyua. Ta hurrengo egunetikan entxufia.

5. Antzerkia Zarautzen

- **Erref:** ZAR-124/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Igandetan antzerki-lanak egiten ziren fraideetan eta parrokian. Artista batzuen izenak aipatzen ditu. Parrokiako antzerkiak euskaraz izaten ziren, eta hango artistarik onenak aipatzen ditu. Beste herri batzuetara ere joaten ziren antzerkiak egitera.

Transkripzioa

Ta gero, eskola gauzak pasa ta geo, zer esango det nik hamen?
Geo, teatruak. Igandetan eiten zian teatruak bai frailetan, igandero obra diferentia e! Frailetan eta bai parrokiyan'e. Biyan artian izugarrizko lutzak! Teatruak izugarri onak, e! Bai!... Frailetako onenak zian artistak Joxe Alberdi, Enrike Miranda, Erzilla, ta beste asko, Eizagirretarrak, eta... Nik'e mutil koskorretan teatrua eiten nun. Geo parrokiyan, berriz, parrokiyan oso teatro... euskeraz eiten zian oso onak denbora haitan. Don Fernando zan maixua ta artifize. Ta hango artistik onenak Luis Amilibia "Piper poto", hori izan da Zarauztik artistik onenetakua, Daniel Iruretagoyena, Piper kale eta beste asko. Baiño teatro oso onak eiten zian, e! Ta hoyenetako oso polita zan Jesusen Biyotza izena zun, Jesusen Biyotza, musika ta guzti, pianua ta kantak. Eta... jo! Izugarriyak eiten zian orduan! Baita kanpoa're juten giñan gu teatrua eitea Elgoibarra ta Axkoitira ta denbora haitan.

6. Entierroetako ohiturak

- **Erref:** ZAR-124/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

"Terzerako" entierroa izaten zenean, parrokian abestera joaten ziren hainbat mutil. "Segundako" eta "primerako" entierroetan nork abesten zuen aipatzen du, eta nolakoak izaten ziren entierro haiek guztiak azaltzen du. Meza ostean, jatekoa emateko ohitura zegoen. Batzuetan, Aiara entierroren batera joateko deitzen zieten, eta jaten ematen zieten. Bapo bazkaltzen zuten denek.

Transkripzioa

Geo gu Hermanutatik entierro segunda zanian, juten giñan parrokira kantatzea. Orduan kantatzen zan entiarrua, zea, latinez dana. Juten giñan Nemexio, Luis Etxabe, Pedro Aristi're bai, ta ni're bai, lau bat bai behintzat; ta orduan kantatzen zan terzerako entierrua hori. Geo izaten zan segundako entierrua, ta hoyek danak izaten zian betzitan, goizian. Segundako entierruan, koroa juten giñan, ta ateatzen zuen libro haundi bat, nota haundi-haundiyakin. Maurixio Amilibia zan libruak ateatzen zituna. Denbora haitan'e kantatzen zuen, baita gu baiño leno, Balero Juaristi (jueza ta sakristua ta ez dakit zenbat gauza izan zan hori, Balero Juaristi); Piper kalek Piper Kalek'e kantatzen zun. Eta gu entierruko segunduan kantatzen giñun don Fernando organua jotzen, Felix Amezti, Juanito sekretayua ta ni. Hori entierroko... segundako entierruan, libru haunditikan, hiru abotseta kantatzen zan. Oso polita izaten zan entiarrua. Ta geroztikan izaten zan, primerakon bat hiltzen zanian, entierro primeran

izaten zan Perosi, lau bozeta: don Fernando jotzen; ta gu kantatzen Felix Amezti, Jabier Zapatero, Piper kale're bai, ta ni, Manolo Iriondo. Ta geo, hori dirudunak zianak, aurreneko, primerako entierruak eta a tienpoko mezak... A tienpoko mezak etortzen ziran inguruko apaizak eta frailiak. Ta hoyetako jatorrena ta xelebriena zan don Daniel: Urdanetatik etortzen zan hura, taka-taka, Urdanetatik, denbora haitan meza ematea. Eta geo, Zarauzko ohitura zan meza ondoren, meza ondoren izaten zan xeixiya, bai Pionian o beste tabernan batian, Kojuanian; ta xeixiyak juten zian nahi zuuna, nahi zuuna, ta orduan ematen zuen intxaurrak, eta ardua, ta ogiya. Ta gero, baita're juten giñan, Aya're juten giñan, Ayaa. Aya baserri onen bateko ona hiltzen zanian, deitzen zigun entierrua juteko Ayaa, ta gu juten giñan taxiyan Antxurriteikin, don Fernando, Felix, Juanito sekretayua, Zapatero, Jabier Zapatero ta ni. Ta orduan ohitura zan Ayan bi entierro segiduan kantatzen zian, bi entierru segiduan, bat bukatu ta bestia. Ta aurrenekoa bukatzen zanian, tarte pixka bat zan, ta Juanito sekretayua, bakizu ze izan zan beti, mutil koskorra bialtzen zun: honea ekarri salda, o zeoze ekarri! Salda o zeoze! Ta biyak kantatzen giñuanian, geo jendia, nola goizian izaten zan entierrua, geo basarritakok urrutitik etortzen zian, ta danak (iya geyenak) asko geatzen zian bazkeita, ta gu're bai beakin, bazkaita. Ta ez nolako bazkayak, e! Ordu batian aldian hasi, ta lautan'e oaindik bazkaitan eoten giñan; ta lautan, bazkayak izugarriyak, e! Orduan gastatzen zituen basarrikuak diru pillá earrak! Eta ze esango nuke geyo? Hainbeste bazkaldu ta zurrutian eiten zan; hildakuakin ez det uste iñor goatzen zanik. Iya bertsoan uste det bukatzen ziala entierruak...

7. Gabonetan kantari diru eske

- **Erref:** ZAR-124/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetan etxez etxe kantari ibiltzen ziren. "Olentzago" kanta. Gerora, korukoak jaiotza eskuan zutela, dirua biltzen joaten ziren.</p>

Transkripzioa

Orain, Gabonetako gauzak. Gu mutil koskorrak giñala, oain'e ibiltzen dia bazkalonduan seituan hartu, zea, almuhada zuri bat, eta da! Etxez etxez kantari, etxez etxez kantari. Ta orduko kantak, Josuuuus... asko zian. Baiña bat hau zan:

Olentzaro begi gorri,
Nun atxitu dek arrai hori,
Zubiaurreko erreketan,
Bast arratseko hamaiketan,
Aginaldo, Aginaldo!
Beste kalia San Bernardo!

Holako gauza batzuek eta beste batzuek'e kantatuko zian. Eta geo, lautan, lautan botatzen zuen diru pixka zuenak, lautan botatzen zuen balkoitikan

naranjak eta intxaurrak... eta danak “oain Xerrasenea!” ta “oain ez dakit noa!”, eta danak han ibiltzen zian saltaka, ta balkoitik bota ta, tarraaaa tata, parra parra harrapatzen gauzak.

Eta geroztikan don Fernandok Gabonetako gauzakin pentsatu zun... Aurrena ateratzen giñan korukuak naximentu bat eskuan, eskuan hartuta, naximentua eskuan hartuta, ta herriko ixkiñetan kantatu, ta diru pixkat biltzen zan. Ez dakit, Mixikordirako izaten zala uste det diru hura.

8. Gabonetako postaria

- **Erref:** ZAR-124/011
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:16:13. **Bukatu:** 00:18:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Postaria jartzea bururatu zitzaion apaizari, umeez erregeei idazten zizkieten gutunak biltzeko. Urte batean, postariaren astoak ihes egin, eta bizikletaz etorri behar izan zuen. Denborarekin, postariaren ohitura nola joan den hobetzen azaltzen du.

Transkripzioa

Geroztikan pentsatu zun karterua jartzia Errege Errege bezperan, karterua, karterua jarri behar zula umientzako kartak biltzeko. Ta karterua jarri bihar, ta iñok jarri nahi ez karterotzat, ta Axkoititik ekarri giñun: gizon bat Axkoititik, aurrenengo urtian gixon bat Axkoititik etorri zan, ta kartero jantzi giñun, bizar haundiyakin, ta Bizar Zuri; eta Lezeraneko jardiñetikan ertetzen zan ertetzen zan karterua, ta ni nitzan hura jatzeko, zea, ordenakua. Ta San Pelayotik etortzen zan zaldiya're bai. Zaldiyakin etortzen zan gizona're jantzi, ta plaza etortzen zan, ta kartak bitu. Ta geroztikan karteruk izan dia asko, baiño geroztik izan dia danak Zarauzkoak, zarauztarrak. Ta gerokua... urte batian jun giñan, ba, Lezeranea: ordua etorri zan, Errege bezpera zan, ta zaldiyakin etorri zan bat San Pelayotik; eta iya presto gebela, iges egin digu zaldiyak San Pelayoa, jata aidian dijoala! Jo ta...! Ordua ertetzeko, ta “oain ze ein behar deu!? Mekatxis! Ze ein behar deu oain?”, ta bizikletan etorri zan, zea, karterua jantzi ber zuna, ta bueno, “bizikletan jun berko yat, ba”. Urte hartan, karterua etorri zan herrira bizikletan gaiñian Bizar Zuri, bizikletan gaiñian. Ta orduan, pues, plazan, plaza Musikan, zea, Musika plazan izaten zan karterua. Geroztikan karterua pixkat hobetu dia, gauzak hobetu dia, ta etortzen da Lezeratik erten, herriz herri plazatik pasa, ta Fronton Zinema. Fronton Zinema etortzen zan. Eta oain azkeneko urte habetan, karterua etortzen da Aiuntamentuko aurrea; hor jartzen da estalpe bat, eta han biltzen ditu herriko umian gauza guztiyak, eta halaxen.

9. Gabonetako erregeak

- **Erref:** ZAR-124/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gerora, erregeen ohitura sortu zuten: erregeek herrian zehar abesten zuten bandarekin batera.</p>

Transkripzioa

Ta gero, don Fernandok pentsatu zun Erregiak Erregiak Erregiak jartzia. Ta oaintxe urte asko dia. Oaintxe Errege nik abestu nula berrogei bat urte izango da. Orduan Erregiak kantatzen zuen herriko ixkiñetan: don Kandidoneko ixkiñan, plaza, koperatibako plazan, ta Xalegineko ixkiñan kantatzen zuen Erregiak. Eta nik uste det Erregiak Zarautzen bakarrik abesten dutela e! Ez det beste iñun kantatu duenik e! O zeatu duenik. Hori Zarauzko gauza izan da. Oain nik musika ta letrak ez dakit zeñek eiñak izango dian; baiña orduan, aurrenengo urtetan, bandakin izaten zan, bandakin, oaiñ'e bai. Banda jun, jo, zea jo, hasiera: tararariri, tararariri tarararire tararariri tararire, tarararire torerai. Erregiak hola kantatzen zuen. Meltxorrek kantatzen zun:

Errege nautela ta mendekoa neri,
Ekarri ohi diyote urria bai lori.
Erregien Errege izanik haur hori,
Ukatuko ez diyo Meltxorrek estori.

Geo, Gaxparrek:
Intzentsua nik zuri, goi bihen Jainkoa,
Hasierarik gabe beti betikoa.
Gaxparrek errege belaunikatua,
Ukatuko ez diyot gizon honratua.

Geo Baltaxarrek, beltzak, holaxe, holaxe:
Gure Jaungoiko maite, zure izatea,
Ludi lurraren jabe, danen Erregea.
Baltaxarrek miltza mirra zuri eskeintzea,
Ukatuko ez diyot, agur da maitea.

10. Zinea Zarautzen

- **Erref:** ZAR-124/013
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Txikiak zirenean, bi zine zeuden Zarautzen: batean, zinea mutua zenez, gizon bat etortzen zen pianoa jotzera; bestean, dohainik sartzeko trikimailuak erabiltzen zituzten. Behin, zineetako batek su hartu zuen.</p>

Transkripzioa

Oain, berriz, gu mutil koskorrak giñanian Zarautzen ziniak zian, teatruaz apartez. Fronton Zineman zinia izaten zan mudua, zine mudo: letrak agertzen zian, ta txarra-txarra-txarra soiñuakin, ta orduan etortzen zan Oriyotik aitona xarra bizarrakin, ta pianua jotzen zun zine zine bitartian, zeoze musikan partez, pianua jotzen zun. Goatzen naiz pieza hau jotzen zun: lalarara, tirirero, torarara, tirerora, tarorara, tirerora, laroriro, lerorara. Ta geo, berriz, hori Fronton Zineman. Ta ordun, zine Modelon, berriz, zine Modeluan'e zinia, ta orduan'e mudua zan, ta zeoze doiñua, soiñua bihar da, eskaillera gora iyo, ta zeon fonografo bat. Fonografuak jotzen zun soiñua; musika, zea, zine denboran fonografua, fonografo denbora, ta zinia.

Ta ordun gu mutil koskorrak diruakin'e zea ibiltzen zian, ta sarrerak iten giñun guk, tranpan batzuk eiten giñun guk, zinia hurrengo igandian debalde ikusteko: billete bat gora beira jarri, ta bestia behera beira, ta ematen giñon mozteko, ta nola punta motza zuen, hurrengo igandian peatzen giñun atziakin, ta aurriakin bat. Ta hurrengo igandian: "gaur ze kolore da?", "Berdia!", ta peatuta eukitzen giñun, ta "raa! Da!" jartzen giñun, ta berriya igual, bestia zarrakin, ta berdia gora, ta tata! Guk zinia debalde ikusteko moua.

Goatzen naiz gu mutil koskorrak giñala, egun batian teloyan atzian zine Modelon ez dakit ze pasa zan, ta sua bezela hasi zan. Sua! Ta bai azkar hustu're zinia! Mekatxis! "Sua!" esan zuenian, ze! Ez zan asko! Dana laixte bukatu zan.

11. Futbola Zarautzen

- **Erref:** ZAR-124/014
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:23:02. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Zarauzko Moillarri futbol-taldeari buruz hitz egiten du. Gerora, Itsasertz futbol-taldea sortu zuten, eta hainbat herritara joaten ziren igandetan partiduak jokatzerara. Club Deportivo sortu zen gero. "Tarzan" kirolariari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

Gu gaztiak giñala, hamen fuboleko ekipua zan Moillarri. Aritzbatalden jokatzen zuen orduan'e. Gu gaztiak... hoixen, ba, gaztiak! Ta ordun, onenetakua Moillarrikua izan zan Kririki. Zarautzikan jun zan, hor bili zan Real Soziedadaren ta, oso onenetakua. Ta denbora haitako Moillarrikuak oain bizi dira, bost bizi dia: bat da Xoxo, bestia Murua, bestia Larrañaga, ta bestia Juanito Iraola eta Patxi Urzelai, denbora haitakuak. Ta geo Moillarrik, Moillarri bastante aurea jun zan Donostiyan, bean dibisiyuan oso aurrera. Ta geo ez dakit ze gertatu zan, Moillarri behintzat bukatu in zan. Ta Moillarri bukatu zanian, Aritzbataldeko kanpua pixkat txikitu're, puskatu're in zan. Bailla, egurrezko bailla bazun; eta guk pentsatu giñun, gure kuadrillan juntatu giñan kuadrilla bat, eta ekipo bat in giñun izena zuna Itsasertz, Itsasertz. Ta ordun zian Altxola anayak, Nemexio Miru, Pikero, Andrex Altuna, Aingeru Berazadik'e jokatu zun gurekin. Geyo zein zian? Ez dakit,

bateon bat lagako det, eta tartian ni're bai. Ta Itsasertzekuk guk in giñun, bi urtetan jokatu giñun hemen hamazazpi ta hemezortzi urte inguruan kanpeonatu bat federatuak, kanpeonato federatua. Ta guk Zarautzen ekipoik ez, o kanpoik ez fubolian jokatzeke. Entrenatu iten giñun Aritzbatalden, baiña igandero juten giñan, bai Deba, Motrikoa, Elgoibarra, Axkoitira, iya igandero. Kamixetak eta danak guk ordainduta: kamixetak, danak; arbitrua're, gure partidua zanian, geuk patzen giñun arbitrua. Ta Txertubikin, Txertubin autobusan juten giñan herri hoita fubolian jokatzea, geure patrikatik patuta dana. Hori, bi urtian jokatu giñun hola. Eta gero, gu ezkerro izan dia hemen fubola, "Club Deportivo"; oaintxe berrogeita bost urte uste det zala fundatu zala. "Club Deportivo", "Club Deportivo" izan dia, berriz, fubolistak pillak izan dia, pillak hainbeste urtian. Geo plaierua're in zuen, eta gure denboretako onenetakua izan zan guekin Itsasertzen jokatzen zuna, Manolo Urzelai. Gure Manolo hau Debaa ta juten zanian, jo! Hori Tarzan deitzen ziyoen, Tarzan: horrek atzea ta aurea geatu gabe ibiltzen zan; horrek zakan sasoya, horrek! Bai pelotan'e, hamen frontoi txikiyan, paletez jokatzen giñun guk, bea Nemexio ta nee kontra. Baiña paetian gora'e iyotzen zan hua, e! Izerdi earrik ateratzen ziun, baiña kosta iten huan hari erabaztia, ta gutxitan erabazten giñun e! Bea bi geyon kontra. Ta geo horrek pelotan ein ditunak Zautzen, Zautzen ta Donostiyan, ta alde guztitan, ta pelotan ta. Hori zan... boxeuan'e kanpeoi atera zan, baiña bizikletan zan izugarri txarra. Ta deporte txarrena, beetzako deporteik txarrena zan dantzan egitia. Munduan ez da gizonik baldarragoik izan Manuel Urzelai baiño dantzan: hankak peatuta eamaten zitun, halako gizona ariña ta pixkorra izanikan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com